

## **Lehen Mailako Arreta indartu beharra: Osatzen elkarteak Osasuneko sailburuaren adierazpenei emandako erantzuna**

Bilbo, 2020ko abuztuaren 17a

Azken urteotan gure arduradun sanitario eta politikoez askotariko adierazpenetan nabarmendu dute **Lehen Mailako Arreta (LMA) indartu beharra** dagoela gure sistema sanitarioaren efizientzia handitzeko.

Adierazpen horien artean Urkullu lehendakariak Euskadiko azken hauteskunde-kanpainan egindakoak nabarmentzen ditugu.

Estatuko eta nazioarteko erakundeek eta adituek LMA indartzea gomendatzen dute, **COVID-19aren oraingo epidemia kontrolatu ahal izateko lehentasunezko estrategia** modura.

Osatzen elkarteak askotan salatu du **LMAk duen egiturazko defizita, zeina azken urteotako krisi ekonomikoek eta horietan hartutako erabaki politikoek larriagotu duten.**

LMAREN egiturazko defizit nagusia profesionalen falta da: espezialista berrien **plangintza eskasa** egin da profesionalen erretiroari aurre egiteko. Defizit horri urte askoan **kostuen aurrezpenean** oinarritutako giza baliabideen kudeaketa gehitu behar diogu. Hori horrela, **sistemaren gainkarga** gertatzen da oporraldietan edo eskaria handitzen denean, COVID-19aren oraingo epidemian gertatzen ari den bezala.

Era horretan, epidemiak agerian utzi du **ez dutela LMA indartu, egingo zutela hitzeman bazuten ere.**

Azken asteetan gure Osasuneko sailburuari entzun diogu esaten LMA ezin dela langile gehiagorekin indartu, ez dagoelako familia-medikurik (FM) kontratatzeke, eta COVID-19aren kasuak eta kontaktuak aztertzeko oraingo programak, batez ere, erizainak eta administrariak kontratatzea ekarri duela, eta horrek LMA indartu duela. Autonomia-erkidego batzuetan zeregin hori LMAREN esku geratu dela jartzen dute adibide gisa.

Jakin badakigu familia-medikuntzako espezialista gutxi daudela, eta, ondorioz, zaila dela horiek kontratatzea.

Baina **LMA indartzea familia-medikuak kontratatzea baino askoz gehiago da. Faktore anitzeko jarduketa** behar da, eta hori askotan zehaztu du Osatzen elkarteak:

- LMArako funtsezko diren **profesional gehiago kontratatzea** (erizainak, administrariak eta farmazialariak, besteak beste). Profil horiek kontratatu ahal dira, eta horrela frogatu du kontaktuak aztertzeko programa sortu izanak.
- **Osasun-zentroen egiturazko erreforma, LMAREN lan-ereduaren aldaketa** errazteko.
- Lehen mailako arretako **taldeak kudeatzeko autonomia** handiagoa.
- **Komunitate-jarduera** sustatzea eta garatzea.
- **Administrazioko langileen** aintzatespen profesional eta ekonomikoa.
- **Unibertsitatean** Lehen Mailako Arretari buruzko berezko eremua garatzea.
- LMAko profesional guztien **luzetarako arreta** sustatzea.
- **Familia-mediku gazteen** kontratazioa hobetzea.
- **LMAko LEP espezifikoak.**
- **Graduatu aurreko eta ondoko irakaskuntza** bultzatzea eta LMAko **ikerketak** sustatzea.
- **LMA indartzea sarean dauden beste baliabide batzuen bitartez** (Osarean, Emergentziak, Etxeko Ospitalizazioa...).
- **Osakidetzaren organigraman LMAREN egitura transbertsal** bat sortzea, LMA zuzendu eta bil dezan, eta ESlen sorrerak, beste aldaketa batzuekin batera, ezarritako antolamenduak alderdi horietan ekarritako kaltea arintzeko.

**OMEk<sup>1</sup>** eta nazioarteko beste erakunde batzuek (AEBko **CDC<sup>2</sup>**, adibidez) emandako gomendioak ezagutzen dituzte gure arduradun sanitarioek. **Gomendio horiek adierazten dute zer eginkizun eta azpiegitura behar diren kontaktuen jarraipen eraginkor bat egiteko, aldi berean aktibo dauden agerraldien oraingo errealitate epidemiologikoak eskatzen duen bezala. Behar horiek gainditu egiten dute % 25-50 langile gutxiagorekin lanean ari den LMAren oraingo gaitasuna.** Jakin beharko genuke beste erkidego batzuetan aztarnariak LMAko langile-taldean sartu diren eta, sartu ez badira, interesgarria izango litzateke baldintza horietan egindako jarraipenak zer emaitza izan dituen ebaluatzea.

LMAn aintzat hartzen dugu kontaktuen jarraipenaz eta azterketa egiteaz arduratzen diren gure kideen lana, **elkarlan estua dugu lankide horiekin, eta** guk atzematen ditugun kasuen eta kontaktuak aztertuta aurkitutakoen **jarraipen kliniko**a egiten dugu. Azken batean, gure errealitate epidemiologikoa kontuan hartuta, uste dugu gure erkidegoan kontaktuen jarraipena egiteko diseinatu den sistema egokia dela, eta, horrenbestez, **ezin da ondorioztatu horregatik LMA** indartu dela, aurretik azaldu dugun bezala.

Azkenik, **gure Lehen Mailako Arreta indartzeko ekimen guztietan Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin elkarlanean aritzeko borondatea dugula** berresten dugu.

LMA indartzea bermea ere izango baita gure sistema sanitarioari **oraingo epidemiak dakarkion erronkari aurre egiteko.**

<sup>1</sup> OME. *El rastreo de contactos en el marco de la COVID-19: orientaciones provisionales*, 2020ko maiatzaren 10a. 2020 [noiz aipatuta: 2020ko abuztuaren 15a]. Hemen eskuratu daiteke: <https://apps.who.int/iris/handle/10665/332083>

<sup>2</sup> CDC. Coronavirus Disease 2019 (COVID-19) [Internet]. Centers for Disease Control and Prevention. 2020 [noiz aipatuta: 2020ko abuztuaren 15a]. Hemen eskuratu daiteke: <https://www.cdc.gov/coronavirus/2019-ncov/php/contact-tracing/contact-tracing-plan/contact-tracing.html>